

## URA DENONTZAT (CARITAS GIPUZKOAren PROIEKTUA)

Dortoka uhartea Haitiko ipar-mendebaldeko hamar udalerrietako bat da. 180 km-ko azalera du, eta 45.000 biztanle ditu. Ipar-mendebaldeko udalerriak, herrialdeko urrunenak eta eskuragaitzenak dira, itsasoarengandik bananduak daudelako eta garraio txarra dutelako.



Dortoka uharteak bi ezagugarri ditu:

- *Nekazaritzako eta abeltzaintzako gune lehorra.* Euri-kantitate txikia izaten duen eremua da, batez ere urritik otsailera egiten du. Gainontzeko urtean zehar, lehorreak arrisku handia du. Ura eskuratzeko zailtasuna, deforestazioarekin eta higadurarekin batera, ekoizpen-giro eskasa sortzen da.
- *Nekazaritza eta arrantza gune lehorra.* Sendi pobreek dibertsifikatu egin dituzte euren jarduerak, artisau-arrantza egiten dute, eta batez ere, itsasotik gertu bizi direnak aritzen dira horretan.

Baliabide hidrikoak, fluxu aldakorreko iturri batzuetara mugatzen dira, eta gehienak urtaro lehorrean agortu egiten dira. Oso iturburu gutxi amaitzen dute itsasoan (eurite handien kasuan izan ezik), eta uhartean ez dago ibairik: oso testuinguru zaila nekazariantzat.

Populazioarekin zerikusia duen datu baten arabera, nahiz eta etxeak oso oinarrizkoak izan -txapazko estalkiak...-, uhartean ez dago "etxerik gabeko pertsonarik". Horrek erakusten du zailtasun handiak izan arren biztanleen artean elkartasun-zentzua dagoela.

Gaur egun, uharteko biztanleek edateko ura dute, hainbat putzu daudelako. Uharteko edateko ura bideratzeko sistemak, etorkizunean, herritarrek, batez ere emakumeek, ura lortzeko ibilbide luzeak egitea saihestuko du.